

AURRERAPEN AGIRIA**BIZKAIA SORTZAILEA 2017 DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENAREN AURRETIAZKO KONTSULTARAKO IZAPIDEA**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen du enpresa sortzaileen proiektu berriak sustatzea (jardunean ari diren nahiz sortu berriak diren enpresetan), bai eta proiektu interesgarriak garatzea, halakoen bidez sektore sortzailei bultzada bat emateko eta sektoreok sendotzeko, horrela enpresa sortzaileen sektore ahaltsu bat ezarri ahal izango baita Bizkaian.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren ustez, industria sortzaileen sektorearen aldeko apustua egin behar da – ezagutzaren, sormenaren eta berrikuntzaren gizarteari loturiko enpresak garatzeko esparrua baita hori–, horrela garapen-gaitasun handia duen ehun ekonomiko bat lortzeko.

Hala ere, sektore horrek dimentsio jakin bateko enpresa izan behar ditu: batetik, modua izan behar dute merkatu globalean lehiatzeko, eta, aldi berean, sektore guztiarentzat interesgarriak diren proiektuak izan behar dituzte, elkarrekin bultzatuak, enpresa sortzaileen lehiakortasuna handitzeko modua ematen dutenak.

b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Industria sortzaileek gero eta garrantzia handiagoa dute hazkunderan oinarritutako ekonomia postindustrialean; Europako herrialde batzuetan, BPGren ia % 10 dira, eta Europar Batasuneko ekonomia osoa baino askoz azkarragoa hazten ari dira.

Hori dela eta, komenigarritzat jotzen da programa berri bat antolatzea, industria sortzaileen sektorea sustatzeko, hazkunderako estrategia gisa.

c.- Arauaren xedea

Hona zein izango den araudiaren xedea: proiektu berriak garatzea enpresa sortzaileetan; nazioartean ikusgarritasuna ematen duten sormenezko enpresa-proiektuak garatzea; hazteko ahalmen handia duten enpresa sortzaileak lasterragotzea, eta

DOCUMENTO DE AVANCE**TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES BIZKAIA CREATIVA 2017**

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, considera necesario fomentar el desarrollo de nuevos proyectos en empresas creativas, existentes y de nueva creación, así como el desarrollo de proyectos de interés para el impulso y consolidación de los sectores creativos, para la consolidación de un potente sector de empresas creativas en Bizkaia.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial apuesta por el impulso del sector de las industrias creativas, como uno de los ámbitos de desarrollo de empresas ligadas a la sociedad de conocimiento, la creatividad y la innovación, con el objetivo de contar con un tejido económico con gran potencial de desarrollo.

Sin embargo, se trata de un sector que precisa contar con empresas con una dimensión que les permita competir en mercado global y, al mismo tiempo, contar con proyectos de interés para el conjunto del sector impulsados desde las asociaciones que permitan la incrementar la competitividad de las empresas creativas.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

Las industrias creativas constituyen un componente cada vez más importante en las economías post-industriales basadas en el conocimiento y en algunos países europeos suponen ya casi el 10% del PIB y crecen a un ritmo muy superior que el total de la economía de la Unión Europea.

Por ello, considera conveniente articular un nuevo programa para impulsar el sector de las industrias creativas como estrategia de crecimiento.

c.- Objeto de la norma

El objeto de la normativa a desarrollar será el desarrollo de nuevos proyectos en empresas creativas, el desarrollo de proyectos empresariales creativos con visibilidad internacional, la aceleración de empresas creativas de alto potencial de

Bizkaian industria sortzaileen sektorea bultzatzen eta sendotzen lagunduko duten proiektuak garatzea.

d.- Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Administrazio publikoek sarri baliatzen dituzte diru-laguntzak industria sortzaileen sektoreko enpresak eta elkarteak sustatzeko, eta, halakoen osagarri, beste tresna batzuk ere erabiltzen dira, hala nola enpresei zuzeneko zerbitzuak eskaintzea. Hor kokatzekoak dira, halaber, Bilbao Bizkaia Design Council (BiDC) delakoaren bitartez egiten diren lankidetzak-jarduketak. Testuinguru horretan, Bizkaia Sortzailea diru-laguntzen programa industria sortzaileen sektoreari laguntzeko tresnen artean toki zehatz bat jasotzen duen programa gisa proposatzen da, sustapen ekonomikoko beste tresna batzuek beren barruan hartzen ez dutena tokia betetzen duena.

e.- Arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta nortzuei zuzendu behar zaien.

Bizkaiko enpresa sortzaileak (lehendik existitzen direnak edo sortu berriak), honako arlo hauetan jarduten dutenak nagusiki: diseinu industrial, ikus-entzunezkoak, bideo-jokoak eta moda.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak, Bilbao Bizkaia Design Council (BiDC) delakoan identifikaturiko industria sortzaileen sektoreetarikoren bateko enpresak eta/edo profesionalak biltzen dituztenak, eta zeinen jarduera nagusia ez den ekitaldiak, biltzarrak, azokak, lehiaketak edo halakoak antolatzea, baizik eta besteren bat.

crecimiento y el desarrollo de proyectos de interés para el impulso y consolidación del sector de las industrias creativas de Bizkaia.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

El fomento de proyectos empresas y asociaciones del sector de las industrias creativas mediante subvenciones es un instrumento comúnmente utilizado por las Administraciones Públicas y complementario a otros instrumentos basados en el ofrecimiento de servicios directos a empresas, así como las actuaciones realizadas en colaboración a través de Bilbao Bizkaia Design Council (BiDC). En este contexto el programa de subvenciones Bizkaia Creativa se plantea como un programa que ocupa un nicho concreto entre los instrumentos de apoyo al sector de las industrias creativas, no cubierto por otros instrumentos de promoción económica.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

Empresas creativas de Bizkaia, existentes o de nueva creación, que desarrollen su actividad principal en las áreas del diseño industrial, audiovisual, videojuegos y moda.

Asociaciones sin fines de lucro que agrupan empresas y/profesionales de alguno de los sectores de la industria creativas identificadas en el Bilbao Bizkaia Design Council (BiDC) y cuya actividad principal sea la prestación de servicios diferentes a la organización de eventos, congresos, ferias, concursos o similares.